


Bilbo unibertsitate-hiria talentu gaztearen hiria

Auzo Faktory Matiko
2018ko apirilaren 26a



Aurkibidea

- TESTUINGURUA
- HELBURUAK
- JARDUNALDIAREN EGITARAUUA
- PARTAIDEAK
- JARDUNALDIAREN EGITURA
- INNOVATING BILBAO SAIOA
- GAIAK
- BILBO, UNIBERTSITATE HIRIA
- BILBO, HIRI GAZTEA
- BILBO, TALENTUA BILTZEN DUEN HIRIA



Bilbo, unibertsitate- hiria eta talentua biltzen duen hiria

TESTUINGURUA:

Bilbo ezagutzaren itsasargi bihurtarazteko apustua egin nahi du Udalak, unibertsitateekin eta ezagutza-zentroekin lankidetzan.

Orobat, Udalak entzuketa-prozesuak egin ditu, gazteei eta hiriari eragiten dieten alderdiei buruz gazteek zer iritzi duten jakiteko.

Mondragon Unibertsitatearekin duen harremanaren ondorioz, Leinn Internationaleko eta Leinn Bilbaoko ikasleei galdetzeko eta beraien iritzia jasotzeko aukera sortu da, Bilbo unibertsitate-hiritzat eta talentua biltzen duen hiritzat nola ikusten duten jakiteko.

Bilbo, unibertsitate- hiria eta talentua biltzen duen hiria

HELBURUAK:

- LEINNeko ikasleen eta Bilboko Udalaren arteko topagune hurbila bultzatzea.
- Udalak hauxe jakin nahi du: LEINNeko ikasleek, nazioartekoek nahiz bertokoez, nola ikusten duten Bilbo unibertsitate-hiritzat eta talentu gaztea biltzen duen hiritzat, nazioartean duten esperientzia kontuan hartuta.



Jardunaldiaren egitaraua

2018ko apirilaren 26a

Auzofactory Matiko

17:00 Juan Mari Aburto Bilboko alkatearen ongietorria.

17:15 *Innovating Bilbao* saioa

18:15 Lantaldeen emaitzak aurkeztea

18:40 Networkinga



Parte- hartzaileak



Jardunaldiaren egitura

1. Aurkezpena
(15 min)

2. «Innovating
Bilbao» saioa
(60 min)

3. Batera
ipintzea
(25 min)

4. Networkinga
(20 min)

«Innovating Bilbao» saioa

Aurkezpena eta testuinguruan ipintzea
30 minutu

Idea-zaparrada
10 minutu

Ideiak batzea
5 minutu

Elkarrizketa eta ideiak zehaztea
15 minutu

Aurkezpenak azaltzea
15 minutu

Gaiak

1. gaia:

**Bilbo,
unibertsitate-
hiria**

- 1. taldea
- 2. taldea

2. gaia:

**Bilbo,
hiri gaztea**

- 3. taldea
- 4. taldea

3. gaia:

**Bilbo,
talentua
biltzen duen
hiria**

- 5. taldea
- 6. taldea

1. GAIA: Bilbo, unibertsitate- hiria

GALDERAK

- Nor naiz? Nolako ikaskuntza-esperientzia eduki dut Bilbon orain arte? (Bilbon unibertsitatean egonik edo Bilbora ikastera etorririk)
- Bilbon unibertsitatean ikasten duen gaztea eta etorkizuneko profesionala zaren heinean, eta Bilbon izan duzun esperientzia aintzat hartuta:

Zer atsegin duzu?

Zer falta da, zure ustez?

Zer alorretan hobetu daiteke?

2. GAIA: Bilbo, hiri gaztea

GALDERAK

Nor naiz? Zer da nire iritzian hiri gaztea? Bilbo hiri gaztea dela uste dut?

Hiriaren izaera aintzat hartuta (ostatuak, zerbitzuak, ekitaldiak, kultura-eskaintza, gastronomia...), eta aintzat hartuta, halaber, beste hiri batzuetatik Bilbora etorri diren pertsonak, nolakoa izan da, orain arte, zure Bilboko egonaldia? Nolako harremana izan duzu Bilboko jendearekin? (bizitza soziala, hartu-emanak, nola eraiki den harremana)

Zer atsegin duzu?

Zer falta da, zure ustez?

Zer alorretan hobetu daiteke?

3. GAIA: Bilbo, talentua biltzen duen hiria

GALDERAK

Nor naiz? Nolako esperientzia izan dut orain arte ekintzaile gisa Bilbon?

Bilbo ekintzailetzarako eremua dela pentsatuz eta aldeko alderdiak, arriskuak eta zure etorkizuneko ikuspegia aintzat hartuz...

Zer atsegin duzu?

Zer falta da, zure ustez?

Zer alorretan hobetu daiteke?

Bilbo, unibertsitate- hiria: «Atsegin dut»

- **Giroa:** hirian, oro har, oso giro ona dagoela uste dute.
- **Segurtasuna:** bat datoz Bilbo hiri segurua dela esatean.
- **Natura:** begi onez ikusten dute Bilbo naturaz inguratuta egotea eta berdeguneak edukitzea.
- **Gastronomia:** Bilbon gastronomia- eta jatetxe-aukera zabala dagoela eta orotariko jatekoa aurki daitekeela uste dute.
- **Kultura-eskaintza:** kultura-eskaintza zabala eta anitza dela uste dute.
- **Garraioa:** beste hiri batzuekin ondo lotuta dagoela eta barneko konexio onak dituela uste dute.
- **Sareak:** sare profesionalak sortzea errazagoa delakoan daude, orotariko eragileen partaidetza zabala dagoelako.
- **Kultura-aniztasuna:** hirian kultura-aniztasuna dagoela uste dute: beste kultura askotako lagunak ikusten dituzte, hein batean Erasmus eta antzeko programei esker.
- **Saltokiak:** merkataritza-eskaintza zabala dagoela eta prezio onekoa dela uste dute.

«Bilbon jendea baketsua da» «Leku guztietara oinez joan zaitezke eta, bestela, oso garraio publiko ona dago»

Bilbo, unibertsitate- hiria: Hobetzeko proposamenak

- **Ostatua:** nazioarteko ikasleentzako eredu berriak eta ostatua aurkitzeko erraztasun handiagoa behar direlakoan gaude; gaur egungo alokairu-eskaintza murrizta eta garestia da.
- **Internalizazioa:** ingelesezko informazio eta seinaleztapen gutxi daudela diote, «dena gaztelaniaz» dagoela eta zaila dela egunerokoan beste pertsona batzuekin ingelesez egitea (leku ofizialetan, saltokietan...). Ingelesez berba egiten duten pertsonak Bilboko kulturen txertatzen laguntzeko neurriak proposatzen dituzte, batez ere egonaldia hastean.
- **Unibertsitate-eremua:** beste unibertsitate batzuetako ikasleekin partekatze eta sinergiak sortzeko doako gunea falta delakoan daude.

«Hezkuntza: teoria gutxiago eta praktika gehiago»

Bilbo, unibertsitate- hiria: Hobetzeko proposamenak

- **Kultura-eskaintza:** alde batetik, kultura-jarduera eta kontzertu gehiago eskatzen dituzte; beste alde batetik, liburutegi gehiago. Diotenez, liburutegiak gainezka daude eta gehienetan ez da lekurik egoten edo oso goiz joan behar izaten da lekuren bat aurkitzeko.
 - **Igandeak:** harritura daude igandeetan dena itxita egoten delako: saltokiak, jatetxeak, leku ofizialak...
 - **Gazteek gazteentzako egindako online eremua:** gazteei interesatzen zaizkien kontuei —ostatuak, gazteentzako ekitaldiak...— buruzko webgune bat eta sare sozialen profil bat behar direlakoan daude, udal eskaintzaz harago doan informazioa partekatzeko.
 - **Gazteen kultura-ekitaldiak:** gazteek sustatutako kultura-ekitaldiek laguntza gehiago behar dutela uste dute.
 - **Gastronomia:** gastronomia-aukera handiagoa nahi lukete: munduko beste leku batzuetakoa, glutenik gabekoa...
- «Lehenengo eta behin, ekitaldi hau egin izana eskertu behar da, gazteei berba egiteko eta esaten dutena entzuteko aukera eskaintzen die eta»

Bilbo, hiri gaztea: «Atsegin dut»

- **Natura:** begi onez ikusten dute hiria itsasotik eta menditik hurbil egotea.
- **Gastronomia:** jatetxeen eta pintxotarako tabernen aukera zabala dagoela eta prezio onekoa dela azpimarratzen dute.
- **Jarduerak:** uste dute BBK Live eta antzeko ekitaldiak direla eta, gazteak mugitu eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen direla.
- **Bizi-kalitatea:** hiriko bizi-kalitatea eta giro ona nabarmendu dituzte.
- **Garraioa:** Bilbok beste hiri batzuekiko lotura onak dituela uste dute.
- **Kultura-eskaintza:** Bilboko kultura-eskaintza zabala dela diote.
- **Iraunkortasuna:** ekintzetan iraunkortasuna zaintzen duen hiritzat dute Bilbo.

«Gustatu egiten zait kalean beti jendea ibiltzea, ordua edo eguraldia edozein izan arren»

Bilbo, hiri gaztea: Hobetzeko proposamenak

- **Gazteentzako eremuak:** tabernez eta jatetxeez harago, gazteak elkarren artean batzeko eremu bat behar dela uste dute. Eta hori baino harago, euren trebeziak garatzeko, partaidetzako proiektuak sortzeko eta munduko beste herrialde batzuetako lagunekin konektatzeko lekua bilatzen dute.
- **Gazte-gunea:** gazteentzako funtzio anitzeko gune bat sortzea proposatzen dute: kultur gunea ez ezik, jaia egitera ere joateko lekua izan liteke. Are gehiago, botilekin zurrutera joateko lekua ere izan liteke.
- **Sareak:** nazioarteko ekitaldi gehiago sustatzeko aukera proposatzen dute, bertan gazteak eta profesionalak elkartzeko. Era berean, ingelesezko informazio gehiago eskatzen dute, atzerritarrek errazago parte ahal izan dezaten.
- **Garraio publikoa:** oro har, hiria ondo lotuta dagoela uste dute; halere, hobetzeko neurriak ere proposatzen dituzte, hala nola bizikleta elektrikoak eta bizikletetarako erreiak zabaltzea. Are gehiago, itsasadarra garraio-bide bihurtzeko aukera ere aipatu dute. Beste alde batetik, aste barruko ordutegia zabaltzea aldarrikatzen dute, garraio publikoa goiz amaitzen delako eta zaila delako 22:00etatik aurrera etxeratzea. Aireportuaren eta hiriaren arteko konexioak ere aipatu dituzte.

«Bilbo hiri txikia da, baina nahikoa handia»

Bilbo, hiri gaztea: Hobetzeko proposamenak

- **Ordainbideak:** adierazi dutenez, leku askotan, batez ere taberna eta jatetxeetan, ez dituzte txartelak onartzen edo zenbateko jakin batetik gorako erosketa egin behar da txartelaz ordaindu ahal izateko. Europako eta nazioarteko beste hiri batzuetan edozein lekutan ordaindu daiteke txartelaz eta oso zabaldua dago, halaber, telefono bidez ordaintzea.
- **Jatetxeak:** bestelako esperientzia eta giroa eskaintzen duten jatetxeak falta dira, gehien-gehienak pintxo-tabernak dira eta. Era berean, eta beste herrialde batzuetan ez bezala, zaila da ohiko ordutegitik kanpo jateko lekua topatzea; adibidez, goizaldeko hiruetan.
- **Nazioarteko garraioa:** nazioarteko garraioa eta nazioarteko loturak hobetzeko premia ikusten dute, kanpora joateko aukera handitze aldera.
- **Ostatua:** ikasleentzako ostatu gehiago behar da, eta ikasleentzako prezioan.
- **Co-workingerako guneak:** gazteek denbora, espazioa eta ideiak partekatzeko co-workingeko guneak behar dira.
- **Ingelesa:** ikasketetan nahiz lanbide-esparruan ingelesaren erabilera handitu egin behar delakoan daude.

«Lanbidean harremanetan ingelesa erabiltzeko aukera gehiago nahi dut (networkinga)»

Bilbo, talentua biltzen duen hiria: «Atsegin dut»

- **Nazioartea:** Bilbo nahiko internazionala delakoan daude, unibertsitatei eta truke-programei esker, Bilbon lan egin eta ikasteko aukera dagoelako.
- **Etengabeko hobekuntza:** begi onez ikusten dute Bilbok etengabeko hobekuntza bilatzea: horixe ikusten da hirian izaten diren ekitaldietan, gero eta ugariagoak diren kultura-mugimenduetan eta orotariko erakundeek jasotzen dituzten laguntzetan.
- **Hiri txikia , baina nahikoa handia:** Bilbon bertako saltoki ugari daude, oso erraza da leku batetik bestera joatea, eskaintza zabala eta potentzial handia ditu, eta sinergiak erraz sortzen dira.

«Bilbon ekintzailtza-sena bizirik dago, aukeraz betetako hiria da»

Bilbo, talentua biltzen duen hiria: Hobetzeko proposamenak

- **Co-workingerako guneak:** gune horiek nazioartekoagoak eta komunikatiboagoak izan behar dutelakoan daude; leku askok ez dute negozio-proiektuak eta -aukerak sortzea ahalbidetuko duen elkarrekintzarik eskaintzen. Bildu, ideiak trukatu eta proiektu berriak sortzeko gunea eskertuko lukete.
- **Nazioarteko konexioak eta garraioa:** ez dago leku askotarako lotura zuzenik, eta hegaldiak oso garestiak dira. Txinan, adibidez, hegaldiak merkeagoak dira eta merke bidaiatzeko aukera dago.
- **Ingelesa gestio burokratikoan:** enpresa sortzeko agiri guztiak gaztelaniaz daude eta, beraz, hizkuntza hori ez dakien pertsonarentzat zaila da gestioak egitea. Online bidez beste hizkuntza batzuetan ere dokumentazioa ematea proposatzen dute, Bilbora inbertsiogile berriak eta start upak erakartzeko. Era berean, jendaurrean dauden funtzionario gehienek ez dakite ingelesez eta, ondorioz, ezin dituzte alor askotako zalantzak argitu (enpresa nola sortu, hiriko kokapena...).
- **Ekintzaile gazteentzako deskontuak:** ekintzailletza sustatzeko asmoz, Udalak gazteei bidea errazteko neurriak hartzea proposatzen dute; besteak beste, deskontuak lantokia alokatzean, garraioan edo gimnasioetan.

«Gazteengan konfiantza gehiago jartzea eta gure proiektuak garatzeko aukera gehiago ematea». «Gazteei aukerak eskaintzera animatzea konpainia handiak»

Bilbo, talentua biltzen duen hiria: Hobetzeko proposamenak

- **Ekintzaileentzako ekitaldiak:** ekintzaileentzako ekitaldi gehiago egitea proposatzen dute, eta dagoeneko daudenen komunikazioa hobetzea, gazteengana heltzeko. Hau bezalako topaguneek ekintzaileen benetako beharrianak ezagutzeko balio dute.
- **Ekintzailetzari buruzko informazioa:** Bilbon ekintzailetzan abiatzeko informazio gehiago eskatzen dute: nora jo, zer izapide egin... eta gazteentzako aukera eta erraztasun gehiago. Eslovenia aipatu dute adibidetzat, bertan errazagoa baita start-upak online eta ingelesez sortzea.
- **Baliabideak:** gazteen proiektuetarako finantza-laguntza handiagoa, asmo handiagokoa, epe luzeagokoa eta inpaktu handiagokoa eskatzen dute.
- **Lege malguagoak:** batez ere prototipoen inguruan. Uste dute legea, batzuetan, zurrunezia dela eta proiektuen prototipoen inguruan malgutzeko eta kudeatzeko sistema bizkorrago baten bidez ekintzailetza sustatuko litzatekeela.
- **Turismoa eta ekintzailetza:** hirigunearen eta Bilbo Handiaren arteko loturak hobetzea proposatu dute, landa-turismoa bultzatzeko.
- **Ingelesa eta beste hizkuntza batzuk:** metroan eta beste leku garrantzitsu batzuetan beste hizkuntza batzuetan ere agertu beharko litzateke informazioa; ingelesez harago, frantsesez edo txineraz ere bai, adibidez.
- **Hobetzea, Bilboko sena galdu gabe.**

«Gestioak astiro egiten dira eta, sarritan, ekintzaileok ezin dugu horren luzaro itxaron»



Bilbao